

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORMAIZTEGIKO UDALA

Iragarkia

Udalbatza Osokoak 2018ko irailaren 17an «Ormaiztegiiko Udalaren dirulaguntzak arautzeko Udal Ordenantza»-ri hasierako onespina eman zion. Toki Erregimenaren Oinarrien Legearen 49 b) artikulua xedatutakoa betez, aipatu onspina jendaurreko erakustaldian ezarri zen, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN azaldu zen biharamunetik hogeita hamar eguneko epean, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe honetan alegaziorik izan ez denez, aipatu Ordenantza behin betiko onartutzat ematen da eta argitara ematen da.

«DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea hau da: dirulaguntzak emateko orduan Ormaiztegiiko Udalak jarraitu behar duen prozeduraren araudi orokorra finkatzea.

2. artikulua. Dirulaguntzaren kontzeptua eta motak.

a) Dirulaguntza edo laguntzat joko da Ormaiztegiiko Udalak pertsona edo erakunde publiko edo pribatuei doan emandako fondo publikoak erabiltzea, interes orokorreko jardueraren bat sustatzeko edo xede publikoren bat lortzea abiarazteko.

b) Dirulaguntzen edo laguntzen funtsa baldin bada udal jabetzako ondasunen gozamina eta aprobetxamendua lagatzea, arau honetan xedatutakoak eta aplikatu beharreko ondare arauak erabiliko dira erregulatuz.

Dirulaguntza mota hauek bereiziko dira:

— Dirulaguntza Izendunak: Horrelakoetan lagun onuradunak zehazturik eta berariaz izendatuta agertzen dira udal aurrekontuan, eta horrela jasota daude udal aurrekontuko gastuen egoeran. Administrazio unitate eskudunak edo erakunde autonomo eskudunak dirulaguntza ematea proposatuz gero, zehatz-mehatz azalduta agertuko da dirulaguntzaren zertarokoa, bai eta adierazita ere dirulaguntza ematea zein helburu, zeregin, jardura edo proiektu jakini atxikita dagoen.

— Zuzeneko dirulaguntzak, aurrekontuan izendun agertzen ez direnak, aurreko deialdirik behar ez dutenak: Baldintza zehatzetarako ematen direnak eta sustatzea komenigarritzat jotzen den jardueraren interes publiko berezia kontuan hartuz ematen direnak.

— Itunpeko dirulaguntzak: Programa-kontratuak, lankidetzak hitzarmenak edo beste itun edo akordio batzuk formalizatzearen ondorioz ematen direnak, behar bezala egiaztatutako arrazoiak daudenean norgehiagoka araubidean emateko dirulaguntzak.

— Norghegiagoka araubideko dirulaguntzak: Horrelakoetan hainbat eskabidek lehian jardun dezakete eta dirulaguntza emateak ondorioz dakar prozedura bakarrean eskabide horiek

AYUNTAMIENTO DE ORMAIZTEGI

Anuncio

Aprobada por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 17 de septiembre de 2018, la «Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Ormaiztegi», en cumplimiento del art. 49 b) de la Ley reguladora de Bases de Régimen Local, y expuesta a información pública por plazo de treinta días desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Transcurrido el plazo de información pública sin producirse alegación alguna, la citada Ordenanza se entiende aprobada definitivamente, por lo que se procede a su publicación.

«ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES

Artículo 1. Objeto.

Este reglamento tiene por objeto establecer el régimen general aplicable en los procedimientos que se sigan en el Ayuntamiento de Ormaiztegi para la concesión de subvenciones.

Artículo 2. Concepto y clases de subvención.

a) Tendrá la consideración de subvención cualquier disposición gratuita de fondos públicos otorgada por el Ayuntamiento de Ormaiztegi, a favor de personas o entidades públicas o privadas, destinadas a fomentar una actividad de interés general o para promover la consecución de un fin público.

b) Cuando las ayudas o subvenciones consistan en la cesión del disfrute y aprovechamiento de los bienes de titularidad municipal, se regirá por lo dispuesto en esta norma y en la normativa patrimonial que le sea de aplicación.

Se distinguen los siguientes tipos de subvenciones:

— Subvenciones nominativas: Son aquellas cuya persona beneficiaria o beneficiarias se encuentran determinadas y explícitamente identificadas en el Presupuesto Municipal, y figuran con tal carácter en el Estado de Gastos del citado documento. La propuesta de concesión de la subvención realizada por la unidad administrativa competente deberá incluir descripción detallada del objeto de la subvención, así como el fin, propósito, actividad o proyecto específico al que se encuentra afectada su entrega.

— Subvenciones directas, que no figuran como nominativas en el presupuesto, sin convocatoria previa: Las que se otorgan para supuestos concretos y en atención al interés público singular de la actividad que se considera conveniente fomentar.

— Subvenciones pactadas: Son aquellas que tienen su origen en la formalización de contratos-programa, convenios de colaboración u otros pactos o acuerdos, en las que concurren razones debidamente acreditadas que dificulten o desaconsejen su otorgamiento en régimen de concurrencia competitiva.

— Subvenciones en régimen de concurrencia competitiva: Aquellas que contemplan una eventual pluralidad de solicitudes y la concesión requiere la comparación, en un único procedi-

elkarrekin alderatzea, batzorde bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, horren bitartez dirulaguntza nori eman ebatzi eta, beharrezkoa izanez gero, zenbatekoa zehazteko.

3. artikulua. Eremua.

Ordenantza honetan datozen arauak aplikatuko zaizkie laguntza eta dirulaguntza publikoei, horrelakoen kudeaketa osoan edo zati batean Ormaiztegi udalaren esku dagoela.

Ordenantza honetan datozen arauak. Arau berezirik edo berriazkorik izan ezean, hauei aplikatuko zaizkie:

– Ormaiztegi Udalak pertsona edo erakunde publiko edo pribatuei doan emandako fondo publikoak erabiltzeari, interes orokorreko jardueraren bat sustatzeko edo xede publikoren bat lortzea abiarazteko.

– Udalaren aurrekontuaren kontura emandako edozein laguntza motari eta beste administrazio publiko batzuetako fondeo batera finantzatzeko dirulaguntzei edo laguntzei.

Beraien izaera dela-eta, berezko arautegia eskatzen duten dirulaguntzetan, arau berezi edo berriazkoek ordenantza honen funtzio edo gizarte interesa edo onurako jarduerak sustatzeko asmoa badute edo helburu publiko edo soziala lortzeko lanean badihardute.

4. artikulua. Onuradunak.

Ormaiztegi pertsona juridiko zein fisikoak eta erakunde publikoak zein pribatuak, betiere, laguntza horien bidez erabilerak publikoko edo gizarte interesa edo onurako jarduerak sustatzeko asmoa badute edo helburu publiko edo soziala lortzeko lanean badihardute.

Era berean, Ormaiztegiak ez diren entitateek ere eskatu dezakete dirulaguntza, baldin eta sustaturiko ekimena Ormaiztegin burutzen bada eta herriaren onurarako dela irizten bada edo garapen-bidean dauden herrietako gizarte edo kultur arloko egitasmoak laguntzea badute helburutzat.

Erakundeek indarrean dagoen legeriaren arabera eratuta eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte Erregistro Orokorrean inskribaturik egon beharko dute eta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoaren, 12. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

Baztertu egingo dira martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoaren, 12.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.

5. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraiki, onuradunak ondoko betebeharrak izango ditu:

a) Dirulaguntza emateko arrazoi diren jarduerak gauzatea eta dirulaguntza emateko erabakian jarritako baldintzak epean barruan bete direla egiaztatzea.

b) Diruz lagundutako jarduera burutzeko jarduera horri dagokion legezko araudia eta segurtasun arloari dagokion gaineko araudia betetzea.

c) Dirulaguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero, eskaini duen organoari horren berri ematea.

d) Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko du argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

miento, de dichas solicitudes entre sí, de acuerdo con los criterios establecidos en las comisiones competentes.

Artículo 3. *Ámbito.*

Las normas contenidas en la presente Ordenanza son de aplicación a las ayudas y subvenciones públicas cuya gestión corresponda en su totalidad o en parte al Ayuntamiento de Ormaiztegi.

Las normas contenidas en la presente Ordenanza serán de aplicación, en defecto de normas especiales o específicas:

– A toda disposición gratuita de fondos públicos realizada por el Ayuntamiento a favor de personas o Entidades Públicas o Privadas, para fomentar una actividad de utilidad o interés social o para promover la consecución de un fin público.

– A cualquier tipo de ayuda que se otorgue con cargo al Presupuesto del Ayuntamiento y a las subvenciones o ayudas financiadas conjuntamente con fondos de otras Administraciones públicas.

Aquellas subvenciones que por su naturaleza requieran una regulación propia, las normas específicas deberán, en todo caso, respetar los aspectos esenciales de la presente Ordenanza así como el resto de disposiciones legales de aplicación.

Artículo 4. *Beneficiarios.*

Podrán ser beneficiarios de la subvención todas las personas, jurídicas o físicas, y entidades tanto públicas como privadas de Ormaiztegi que tenga como finalidad destinar la subvención concedida a la realización de actividades de utilidad pública o interés social, o en todo caso, que se dediquen a alcanzar objetivos de carácter público o social.

Asimismo, también podrán optar por la subvención las entidades que, aun no perteneciendo a Ormaiztegi, realicen en este municipio las actividades objeto de subvención y que se estiman que son de interés para Ormaiztegi o si tienen como objeto ayudar a proyectos de carácter cultural o social en países en vías de desarrollo.

Las entidades solicitantes deberán estar constituidas de acuerdo con la legalidad vigente e inscritas en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco. Asimismo, deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Quedarán excluidos todos aquellos que se encuentren en alguna de las situaciones contempladas en el artículo 12.2 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 5. *Obligaciones de los beneficiarios.*

Al amparo de lo regulado en el artículo 13 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, el beneficiario deberá cumplir las siguientes obligaciones:

a) Realizar las actividades en que se ha fundamentado la concesión de la ayuda y justificar el cumplimiento en plazo de todas las condiciones establecidas en el acuerdo de dicha concesión.

b) Cumplir las normas de seguridad y demás normativa correspondiente a la actividad organizada.

c) En el caso de producirse alguna modificación en cualquiera de los apartados tenidos en cuenta a la hora de conceder la subvención, deberá comunicarse dicho cambio al órgano concedente.

d) El beneficiario deberá utilizar el euskara, o bien euskara y castellano, en la publicación de todo anuncio, aviso, comunicación etc. referente a la actividad subvencionada.

e) Ormaiztegiko Udalak egin ditzakeen finantza kontrol eta egiaztapen jarduerak onartzea.

f) Helburu bererako beste administrazio edo erakunde publikotatik jasotako diru- laguntzen edo izandako diru-sarrereren berri ematea Ormaiztegiko Udalarri.

g) Jarduerari lotutako publizitatean Ormaiztegiko Udalaren babesa adierazi beharko da udalaren armarrria txertatuz.

Betebehar horiez gain, dirulaguntza ematerakoan baldintza bereziak jarri bazaizkio haiek ere bete beharko ditu onuradunak.

Aipatutako betebeharrak betetzen ez baditu onuradunak, dirulaguntza ezeztatu egingo da.

6. artikulua. Dirulaguntzak emateko printzipioak.

– Araudi honetan mintzagai ditugun dirulaguntzak publizitate, gardentasun, parte- hartze, objektibotasun, berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioen baitan emango dira.

– Dirulaguntzak edo laguntzak emateko, ezinbesteko baldintza izango da ebazpena ematen den unean helburu horretarako aurrekontuan behar besteko diru izendapena izatea, eta ez dago obligaziorik aurrekontu kredituak gehitzeko.

– Dirulaguntza edo laguntzak borondatezkoak eta behin-behinekoak izango dira, legeek edo araudiek bestela xedatutakoak izan ezik.

– Lehendik emandako dirulaguntzek ez dute inongo eskubiderik sortuko eskaera egiten dutenen alde, eta beste inoiz eman izana ez da kontuan izango berriro emateko irizpide modura, legeek edo araudiek bestela xedatu ezean.

– Ezingo da exijitu dirulaguntzaren zenbatekoa gehitzeko, salbuespenezko egoerek hala egitea aholkatu ezean, eta hala bada, udalak berak baloratu eta bereganatu beharko ditu.

– Dirulaguntzak edo laguntzak emango dira ordenantza honetan xedatutakoaren arabera eta, halakorik izanez gero, dirulaguntza eremu bakoitza arautzeko oinarrietan xedatutakoaren arabera.

– Dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz gairitu –barririk edo beste diru- laguntza batzuekin batera- onuradunak egin beharreko ekintzaren kostua.

– Ez da izango zertan egin publizitaterik edo zertan antolatu norgehiagokarik, diru- laguntzak izendunak, zuzenekoak eta itunekoak izanez gero, ezta horiek ematea eta zenbatekoa udala lotzen duen arauen batek ezartzen dituen ere.

7. artikulua. Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa.

Dirulaguntza egiteko, dokumentazio hau ekarri behar da udalera:

Deialdi bakoitzean aurkeztu beharreko derrigorrezko dokumentazioa.

– Dirulaguntza eskari normalizatua behar bezala beteta.

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria.

– Jardueraren aurrekontua eta programa.

Deialdi bakoitzean aurkeztu beharreko derrigorrezko dokumentazioa laguntza izendunetan eta itunpekoetan izan ezik.

– Eusko Jaurilaritzako Elkarte eta Entitateen Erregistroan izena emana duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

– Eskatzailea entitate bat denean IFKren kopia eta pertsona bat denean Nortasun Agiriaren kopia.

e) Someterse a las actuaciones de control y comprobación financiera que pudiera realizar el Ayuntamiento de Ormaiztegui.

f) Comunicar al Ayuntamiento de Ormaiztegui la obtención de otras subvenciones, o ingresos destinados a financiar las actividades subvencionadas.

g) En toda publicidad relacionada con la actividad subvencionada deberá constar el patrocinio del Ayuntamiento de Ormaiztegui, insertando el escudo del municipio.

Además de lo anteriormente expuesto, el beneficiario deberá cumplir, en su caso, las condiciones especiales establecidas en la concesión de la subvención.

El incumplimiento por parte del beneficiario de las obligaciones señaladas, conllevará la revocación de la subvención.

Artículo 6. Principios para la concesión de subvenciones.

– Las subvenciones a que hace referencia este reglamento de concederán siguiendo los principios de publicidad, transparencia, participación, objetividad, igualdad y no discriminación.

– Los programas de subvenciones o ayudas quedarán condicionados a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente para dichos fines en el momento de la resolución, sin que exista obligación alguna de proceder a incrementar los créditos presupuestarios.

– Las subvenciones o ayudas tendrán carácter voluntario y eventual, excepto lo que se dispusiera legal o reglamentariamente.

– Las subvenciones otorgadas con anterioridad no crearán derecho alguno a favor de las personas solicitantes, y no se tendrá en cuenta el precedente como criterio para una nueva concesión, excepto lo que se disponga legal o reglamentariamente.

– No será exigible el aumento de la cuantía de la subvención, salvo circunstancias excepcionales que lo motiven, que, en todo caso, deberán ser valoradas y asumidas por el propio Ayuntamiento.

– La concesión de ayudas o subvenciones se efectuará conforme a lo establecido en la presente Ordenanza.

– El importe de las subvenciones –aislada o en concurrencia con otras subvenciones- en ningún caso podrá superar el costo de la actividad a desarrollar por los beneficiarios.

– No será necesaria la publicidad ni la concurrencia en los supuestos de subvenciones nominativas, directas y pactadas, ni cuando su concesión y cuantía resulten impuestas por norma que vincule al Ayuntamiento.

Artículo 7. Lugar de presentación de solicitudes y documentación a aportar.

Para solicitar la subvención se deberá presentar en el Ayuntamiento la siguiente documentación:

Documentación obligatoria en cada convocatoria.

– Impreso de solicitud normalizado, debidamente cumplimentado.

– Documento justificativo de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y las referidas a la Seguridad Social.

– Presupuesto desglosado y programa de actividades.

Documentación obligatoria en cada convocatoria para todas las subvenciones exceptuando las nominativas y pactadas.

– Certificado acreditativo de hallarse inscrito en el Registro de Asociaciones y Entidades del Gobierno Vasco.

– Copia del CIF en el caso de que el solicitante sea una entidad, o copia del Documento de Identidad en el caso de personas físicas.

– Eskaria egiten duen erakundeak irekitako kontu korronteen titularitate ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxa horrek emaniko agiria.

Dirulaguntza izendunen kasuan dokumentazio hau behin bakarrik aurkeztu beharko da, baldin eta aldaketarik ematen ez bada deialdi batetik bestera.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaio aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

Erakundeak ez du zorrik izango Ormaiztegiko Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar.

Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, urriaren 1eko Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Erki-dearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen leketan ere aurkez daitezke.

8. artikulua. Epeak.

8.1. Urteko ekintzen programara aurkezteko hilabeteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

8.2. Ekintza puntualen programara aurkezteko eskaeren xede den jarduera gauzatu baino bi hilabete lehenago. Puntualtzat joko dira ez ohikoak eta aurreko urtean egin ez diren egitasmoak.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, interesdunari hamar laneguneko epea emango zaio akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa aurkez dezan. Jakinaraziko zaio halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria baliogabetuta geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela indarrean dagoen araudiari jarraiki.

9. artikulua. Eskaeren balorazioa.

Dirua jarduera bakoitzeko emango da eta bat baino gehiago egiten bada, jarduera bakoitzeko jasotzen den diruaren batura izango da jasoko dena.

Udal batzorde bakoitzak aplikatu ahal izango ditu eskaerak baloratzeko irizpide orokorrak, eta horrela baderitzo, bere alorreko dirulaguntzei dagozkien baldintza eta balorazio-irizpide espezifikoak ezarri ahal izango ditu:

Funtzionamendu iraunkorra eta ekintza finkoak dituzten entitateen urteko programak direnean, udalak hitzarmen modalitatea ezarri ahal izango du interesdunekin. Hitzarmen horrek, entitatearen ordain gisa jasoko ditu urteko programak edo kultura, gizartea eta kirola sustatzeko eta zabaltzeko eremuetako ekintza zehatzak garatzea eta gauzatzea.

10. artikulua. Dirulaguntza emateko erabakia.

Dirulaguntzak ematea proposatuko duen batzorde informatzaileak ebaluatuko ditu eskaerak, dirulaguntzak emateko Oinarri Erregulatzaileetan eta departamentu bakoitzak ezarritako balorazio irizpideen arabera eta dirulaguntza emateko proposamena egingo dio Tokiko Gobernu Batzarrari ebatzi dezan. Proposamen horretan batzorde informatzaileak eskatzaileen eta bakoitzari dagokion zenbatekoaren zerrenda, ebaluazioa eta laguntza emateko erabilitako irizpideak jasoko dira.

Dirulaguntza, beste erakunde publikoren batek helburu bererako eman lezakeen dirulaguntza barne, ezingo da inoiz jardueraren kostua baino handiagoa izan.

– Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente presentada por la entidad solicitante, expedido por el Banco o Caja correspondiente.

En el caso de las subvenciones nominativas esta documentación deberá presentarse una única vez, y no en cada una de las convocatorias, o siempre que haya cambios en el estado de alguna de ellas.

En cualquier caso, además de la documentación referida a la iniciativa prevista, se podrá requerir a la entidad solicitante que facilite la información complementaria que se estime oportuna para valorar adecuadamente la iniciativa en cuestión.

La entidad no deberá tener ninguna deuda pendiente con el Ayuntamiento de Ormaiztegui y en lo que a esto se refiere, no habrá que presentar ninguna documentación.

Las solicitudes se deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento, mediante los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento. También podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 8. Plazos.

8.1. El programa anual de actividades se deberá presentar en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la fecha de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

8.2. En el caso de una actividad puntual, el programa correspondiente se deberá presentar con dos meses de antelación a la realización de la actividad objeto de subvención. Se entenderá por puntual aquella que no es habitual y no se ha realizado el año anterior.

Cuando se observe que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos o agregue la documentación preceptiva. Asimismo, se le indicará que si así no lo hiciera, no se tomará en consideración su solicitud, por lo que se archivará automáticamente, en aplicación de la normativa vigente.

Artículo 9. Valoración de las solicitudes.

La subvención se concederá para cada actividad. En caso de realizar más de una actividad la cantidad total a recibir será la suma de las cantidades que correspondan a cada actividad.

Cada comisión informativa municipal establecerá las condiciones y criterios de valoración específicos de las subvenciones relacionadas con su área.

En caso de tratarse de programas anuales presentados por entidades de funcionamiento permanente y que desarrollen actividades fijas, el Ayuntamiento podrá optar por la modalidad pactada. En este tipo de convenio, se considerará como aportación de la entidad el desarrollo y la ejecución de los programas anuales o actividades concretas destinadas al fomento y difusión cultural, social y deportiva.

Artículo 10. Resolución para la concesión de la subvención.

La Comisión informativa valorará las solicitudes de acuerdo con los criterios establecidos en las Bases Reguladoras para la concesión de subvenciones y elevará una propuesta a la Junta de Gobierno Local, para su resolución. En dicha propuesta, el Comisión informativa deberá hacer constar la relación de los solicitantes así como los criterios seguidos para establecer el orden de prioridad para la concesión de la subvención, siendo los criterios generales los que siguen:

Cada comisión podrá aplicar los criterios generales para la valoración de solicitudes, y si lo estima oportuno establecer los criterios específicos de las ayudas de su ámbito de actuación:

Eskaerak baloratzeko irizpide orokorrak

	Baxua	Ertaina	Altua
Jardueraren kalitatea eta interés maila	0-5	6-10	11-15
Aurrekontu orokorrekiko autofinantzazio maila	0-5	6-10	11-15
Irabazteko asmorik gabeko erakundea edo ekimena izatea	0-3	4-6	7-10

	Ormaiztegi	Gipuzkoa	Euskal Herria	Besteak
Oihartzun eta hedapen eremua	41-60	21-40	11-20	0-10

Criterios generales para la valoración de solicitudes

	Bajo	Medio	Alto
Grado de calidad e interés de la actividad	0-5	6-10	11-15
Grado de autofinanciación de la actividad respecto al presupuesto global	0-5	6-10	11-15
Condición de entidad exenta de ánimo de lucro	0-3	4-6	7-10

	Ormaiztegi	Gipuzkoa	Euskal Herria	Otros
Ámbito de repercusión y difusión	41-60	21-40	11-20	0-10

Laguntza edo dirulaguntza emateko ebazpenak arrazoitua behar du eta, nolahi ere edozer ebazten dela, argi azaldu behar da zein diren horren funtsak, araua edo deialdiaren oinarriak arautzeko irizpide objektiboak erreferentzia erabilita.

Halaber, berariaz adierazi behar dira beste hauek: Dirulaguntzaren zertarakoa, zein eskatzaile ematen zaion, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epea, justifikatzeko modua, zein ebazpenen arabera ematen den eta deialdia arautzeko oinarriek eskaturiko bestelako baldintza eta betebeharrekoak, eta nolahi ere berariaz adieraziko da gainerako eskabideak gaitzetsi direla.

Orobat, ebazpenean adierazi behar da zein errekurtso aurkezteko horren aurka, baita zein auzitegi organotan eta epetan aurkeztu ere, eta interesdunei adieraziko zaie egoki irizten dioten beste edozein bide ere erabil dezaketela.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoaren, 17. artikuluan adierazitako eran argitaratuko ditu Udalak ematen dituen dirulaguntza guztiak.

11. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren % 70a ordainduko da, eta horretarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako % 30a emandako Dirulaguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Dirulaguntzak lehia-keta edo txapelketa baten diru-sariak ordaintzeko direnean, eskatzaileek aipatu portzentajeak aldatzeko eskaera egin eta udalak, kasua aztertu ondoren, bestelakorik erabaki dezake.

12. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea.

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu behar du, hilabeteko epean eta. Beti ere, jarduera egin deneko hurrengo egunetik zenbatuta.

a) Diruz lagundutako jardueraren memoria, behar bezala beteta.

La cuantía total de la subvención, incluida la que pudiera otorgar otra entidad pública para el mismo fin, no podrá superar en ningún caso el coste de la actividad subvencionada.

La resolución de la ayuda o subvención concedida ha de ser motivada y quedarán en todo caso acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen en la norma o bases de la convocatoria. Así mismo, se deberá hacer constar expresamente el objeto, solicitantes o relación de solicitantes a los que se concede la subvención, importe, forma y plazos de pago, y demás condiciones y requisitos exigidos por las bases reguladoras de la convocatoria, debiendo hacer constar, en todo caso, de manera expresa, la desestimación del resto de solicitudes.

Igualmente, en la resolución se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

El Ayuntamiento dará publicidad a todas las subvenciones concedidas en la forma prevista en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 11. Pago de la subvención.

Inmediatamente a la notificación de la concesión, se procederá al pago del 70 % de la subvención, no exigiéndose para ello garantía alguna a los beneficiarios. El 30 % restante se pagará previa justificación de la aplicación de la subvención recibida. Cuando las ayudas solicitadas tienen como objeto premios en metálico de concursos o campeonatos, el beneficiario podrá solicitar un cambio en los porcentajes mencionados y el Ayuntamiento, una vez estudiado el caso, podrá variar los mismos.

Artículo 12. Justificación de la subvención.

Para la justificación de la subvención concedida, la entidad o persona beneficiaria deberá presentar la documentación que se indica a continuación, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la realización de la actividad.

a) Memoria sobre la actividad subvencionada, debidamente cumplimentada.

- b) Sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa.
- c) Aurkeztutako fakturen zerrenda.
- d) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

e) Gastuaren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpulsatuak. Egiaztagiri hauek, ezinbestez, dirulaguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da dirulaguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Fakturretan hauxe agertuko da:

- Erakunde edota elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa eta IFK.
- Fakturaren data.
- Zerbitzuaren deskripzioa.

Dirulaguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da dirusaririk jasoko.

Ez dira onartuko administrazio, antolamenduko eta abarreko barneko kostuak ez eta bazkari, afari edo ostalaritzari dagozkion beste kosteak, dirulaguntza jaso duen ekintzako parte hartzaileek sortutako gastuak izan ezik, ekintza horren antolaitzaileak kenduta.

Dokumentazioa aurkezteko epeak:

– Urteko jarduna, urte deialdiaren ondorengo urteko urtarriaren 31 baino lehen.

– Jarduera ez ohikoak, burutu ondorengo hiru hilabeteren barruan.

13. artikulua. Ez betetzea.

Oinarri hauetan edo subentzioaren emakidan zehazten diren betebeharrak edozein ez betetzeak laguntza berrikustea ekarriko du eta, hala badagokio, emandako diru-kopurua baliogabetea, murriztea edo itzularaztea ere ekar lezake.

14. artikulua. Klausula gehigarriak.

Oinarri hauen interpretazioari buruz sor daitekeen edozein zalantza batzorde informatzaileak erabakiko du eta, gero, horren berri emango dio udal organo eskudunari.

Oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira 3/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoaren, 17. artikuluari jarraiki.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onespina jaso eta udal iragarki oholean eta «Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN» osorik argitaratu ostean sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du hura aldatzen edo indargabetzen den arte.»

Ormaiztegi, 2018ko azaroaren 15a.—Jon Enrique Galarza, alkatea. (7646)

- b) Balance económico de ingresos y gastos.
- c) Relación de las facturas presentadas.
- d) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

e) Justificantes originales del gasto o fotocopias compulsadas. Los justificantes deberán corresponder necesaria y exclusivamente a los gastos ocasionados con el cumplimiento de los fines y actividades para los que se concedió la subvención. No podrán admitirse como justificación los gastos realizados con otro objeto. Para la justificación se tendrá en cuenta el gasto previsto inicialmente y el gasto final, de tal manera que se aplicará el principio de proporcionalidad, que tendrá como límite la cantidad concedida para la subvención.

En las facturas se indicará lo siguiente:

- Identificación de la entidad o asociación.
- Identificación y NIF del proveedor.
- Fecha de factura.
- Descripción del servicio prestado.

No se admitirá la remuneración económica por la labor de organización de la actividad.

No se admitirán los gastos internos tales como los administrativos, de organización, etc., ni los originados por comidas, cenas, o alojamiento, salvo los gastos correspondientes a los participantes en la actividad, exceptuando en todo caso los organizadores de la misma.

Plazos para presentar la documentación:

– Tratándose de una actividad anual, antes del 31 de diciembre de cada año.

– En el caso de actividades concretas, dentro de los tres meses siguientes al de la realización de la actividad.

Artículo 13. Incumplimiento.

El incumplimiento de cualquiera de los requisitos establecidos en las presentes bases o en la concesión de la subvención, conllevará la revisión de la ayuda concedida pudiéndose, en su caso, dejar sin efecto la subvención, reducir su cuantía e incluso el reintegro de la cantidad recibida.

Artículo 14. Cláusulas adicionales.

Corresponderá a la Comisión informativa la resolución de cuantos conflictos pudieran surgir en la interpretación de las presentes bases, quien lo comunicará al órgano municipal competente.

Las presentes bases se publicarán en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, de conformidad con lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 12 de abril de 2007).

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente y publicada íntegramente en el tablón municipal de anuncios y en el «BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa», manteniendo dicha vigencia hasta su modificación o derogación.»

Ormaiztegi, a 15 de noviembre de 2018.—El alcalde, Jon Enrique Galarza. (7646)